

## HITZ BITAN

## GENERO INDARKERIA

# Tafallako gizon bati bi urteko zigorra ezarri diote, alabari sexu abusuak eragiteagatik

Agentziak | IRUÑEA

Iruñeko Zigor Auzitegiak bi urteko espetxe zigorra ezarri dio 48 urteko Vicente D.C.-ri, 1993an jaiotako alabari sexu abusuak eragiteagatik. Vicente D.C. eta bere emaztea bananduta zeuden, eta alabak bi aste-burutik bat egiten zuen aitarekin.

Epaia dioenez, «berarekin egoten zen asteburuetan, aitak bere ohean sartzen zuen alaba, eta sexu-organoetan ukitzen zuen». 2000. urtean, alabak 7 urte zituela, zer gertatzen ari zen ohartu zen ama, «alabak alu eta bagina ingurua gorrituta» zeuzkalako, «aitak egindako zirrriengatik». Epaia dio gehiegieria ez zela kasu jakin batean izan, etengabe baizik.

Bestalde, aitak akusazioak ukatu zituen arren, epaitegiko mediku eta psikologoek adierazi zuten alaba ez dela gertakariak asmatzen dituzten horietakoa, eta egia esaten duela jasandakoaz. Epaitegiak ontzat hartu ditu lekukotza horiek, bere ebazpena kaleratzeko garaian.

## Jipoia bikotekide ohia

Bestalde, Ertzaintzak gizonen bat atxilotu zuen atzo Barakaldon, bikotekide ohia jipoitu izana leporatuta. Eusko Jaurlaritzaren arabera, emakumea jo, lan egiten zuen dendan kalteak eragin eta bertako langile bati mehatxuak egin zizkion atxilotuak. Ertzainek indarrez atxilotu behar izan zuten 30 urteko gizona.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta Roman Sudupe diputatu nagusia, atzoko agerraldian.

## TEKNOLOGIA BERRIAK

## Plangintzak koordinatzeko protokoloa sinatu dute Ibarretxek eta Sudupek

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxek eta Gipuzkoako diputatu nagusi Roman Sudupek protokoloa sinatu zuten, atzo, bi erakundeek teknologia berriak sustatzeko dituzten plangintzak koordinatzeko. Hala, Euskadi Infor-

mazioaren Gizartean eta eGipuzkoa 2005 planak koordinatzea da, beraz, itunaren helburua. Ibarretxek adierazi zuenez, biztanleen %65ek Internetarako konexioa izatea da bi erakundeen helburua.



LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

## ISTRIPUAK

## Hainbat lagun zauritu dira euskal errepideetan

Kamioiak istripu iturri izan ziren atzo euskal errepideetan. Iruñen, A-8an, kamioi bat irauli eta bertan zihoazen bi gizonak zauritu ziren. Bidasoako Ospitalera eraman zituzten. Tolosan, N-1ean gertatu zen ezbeharra. Kamioi bat errepidetik irten zen, eta gidaria Tolosako Jasokundearen Ospitalera eraman zuten. Horiez gain, bi haur zauritu ziren, bat Hernanin eta bestea Zumarragan. Hernanin, Karobieta auzoan gertatu zen ezbeharra, eta 11 urteko ume bat zauritu zen; Zumarragan, Labeaga kalean harrapatu zuen auto batek 9 urteko ume bat.

## HEZKUNTZA

## ELAk Espainiako Gobernuaren Kalitate Legea kritikatu du Nafarroako Legebiltzarrean

ELAko irakaskuntza taldeak Espainiako Gobernuaren Kalitate Legea kritikatu zuen atzo Nafarroako Parlamentuan, eta aurretik LOGSE baztertzeko «borondate politiko argia» zegoela salatu zuen. Sindikatu horretako kideak legeaz duten iritzia emateko agertu ziren Hezkuntza eta Kultura Batzordean, Herrikoarekin, LABekin, Ikastolen Federazioarekin eta Sortzen-ekin batera. ELAk nabarmendu zuen ordezkatu nahi dela oinarri pedagogiko trinkoetan eratutako lege bat «ahaleginaren kulturaren» oinarritutako beste batekin.

## ARRAZAKERIA

## 'Hezi-ekin' ekimenean parte hartzeko deia egin die 123 ikastetxeri Medicus Mundik

Gipuzkoako Medicus Mundik Hezi-ekin egitasmoari atxikitzeko gonbita egin die 123 ikastetxeri. Ekimena DBHko ikasleei zuzenduta dago, adin horretako haurrengan sumatu diren arrazakeria jokabideak direla eta. Lan dinamika irakasleek eramango dute, eta galderak egingo dizkiete ikasleei, desberdintasunak normalizat har ditzaten. Medicus Mundiko 15 kide baino gehiago aritu dira ekimena prestatzen. Programa horretan parte hartzen duten ikastetxeek 300 fitxa, 15 ariketa eta 60 jarduera egin beharko dituzte. Bertan, etorkinen egoera eta arrazakeria jorratuko dituzte, besteak beste.

## INGURUMENA

## Giza katea egingo dute Boroako zentralaren kontra

Zornotza Bizirik Plataformako kideek giza katea egingo dute larunbatean Zornotzako kaleetan, Boroako zentral termikoaren kontra. Bertan, erreferendumen emaitzak onar ditzala eskatu diote Udalari, eta, bide batez, urriaren 19an zentral termikoaren kontra egingo den elkarretaratzean parte hartzeko deia egingo diete herritarrei. Lehengo astean Zornotza Bizirik taldeko kideek itxialdia egin nahi izan zuten udaletxean, Udalaren jarrera salatzeke, baina baimena ukatu zieten.

## UNIBERTSITATEA

## Larrialdien Kudeaketarako gradu aurrekoa eskainiko du ikasturte honetan EHUK Gipuzkoako campusean

Euskal Herriko Unibertsitateak Larrialdi Kudeaketarako gradu aurrekoa eskainiko du aurtun, lehen aldiz. Gurutze Gorriarekin lankidetzan egindako proiektua da. 400 orduko ikastaroa izango da, eta eskola praktikoak ere eskainiko dituzte. Segurtasun, prebentzio eta larrialdien kudeaketan profesionalak direnei zuzenduta dago, eta baita segurtasun publiko eta pribatuko teknikariei ere. Gipuzkoako Zuzenbide Fakultatean eskainiko dute, eta matrikula urriaren 21etik 25era bitartean egin beharko dute interesa dutenek.

## GARRAIOA

## Ezindu larrientzat Bono Taxiak martxan jarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako Bono Taxiak erabili ahal izango dituzte garraio publikoa erabiltzeko arazoak dituzten ezindu larriek. Gizartekintza programa gupil aukietan daudenei edo gaixo larriek zuzenduta dagoela azaldu zuen atzo Koruko Aizarna Aldundiko bozeramaileak. Ezohiko ekintzarako erabili ahal izango dira Bono Taxiak, hau da, aisialdirako, eta ez eskola eta lantokira joateko. 2002rako 24.000 euroko diru saila onartu du Foru Aldundiak. Programa horretan izena eman dutenek 60,10 euroko diru laguntza izango dute gehienez hileror.

## BAHIKETA

## Bizkaian uztailean bahitutako haurra aurkitu dute, Santanderren

Espainiako Poliziak desagertuta zegoen 2 urteko haur bat aurkitu du Santanderren (Espainia). Paulino Enrique Gomezek, haurraren aitak, kartzelako baimen bat aprobetxatuz bahitu zuen semea uztailean, Bizkaian; geroztik, desagertua zegoen. Bi urteko haurraren amak bahiketaren berri eman zuen. Astelehenean atzeman zuten haurra, aita atxilotu eta gero, Poliziak adierazi duenez. Orain, aitona-amonen esku dago, Bizkaian. Paulino Enrique Gomez Langraizko kartzelan zegoen, hainbat agiri faltsutzea, lapurreta egitea eta armak izatea leporatuta. Uztailearen 17an, kartzelako baimena aprobetxatu zuen, haurra aitona-amonen etxetik jasotzeko. Geroztik, ez zegoen aitaren eta 2 urteko semearen berririk.